



Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren 2024ko Plan Operatiboa

#V gazte plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren
Idazkaritza Nagusia
Gazteria Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Transición Social
y Agenda 2030
Dirección de Juventud

Aurkibidea

1.	SARRERA.....	2
2.	V. GAZTE PLANEAN ERAGINA DUTEN EUSKO JAURLARITZAREN PLANAK ETA ESTRATEGIAK	4
2.1.	V. Gazte Planaren eta Eusko Jaurlaritzaren beste plan estrategiko batzuen arteko lotura.....	5
2.2.	V. Gazte Plana eta Garapen Iraunkorreko Helburuak	7
3.	GAZTERIA EUSKADIN.....	14
3.1.	Testuinguru demografikoa.....	15
3.2.	Hezkuntza	19
3.3.	Enplegua eta ekonomia-egoera.....	24
3.4.	Emantzipazioa eta etxebizitza	36
3.5.	Osasuna.....	40
3.6.	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	52
3.7.	Balioak eta jarrerak.....	55
3.8.	Aisia	59
4.	2022-2026 ALDIRAKO V. GAZTE PLANAREN EGITURA	65
5.	2024ko PLAN OPERATIBOA.....	69



1.

SARRERA

1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren **2022-2026 aldirako V. Gazte Planak** erakunde horrek gazteriarekin duen konpromisoaren eta ekintzaren jarraipena adierazten du, eta haren egiturak 4 ardatz, 15 arlo, 33 helburu estrategiko eta 73 esku-hartze ildo ditu.

2024ko Plan Operatiboa egiteko, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza bakoitzak gogoeta egin behar izan du gauzatu beharreko jarduera guztiak definitzerakoan, baita horretarako erabiliko den aurrekontua, ebaluazio-adierazleak eta ekitaldian jarduera bakoitzerako lortu beharreko helburu-balioa edo xedea ere, 2024ko ekitaldia igaro ondoren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

Datuak biltzeko, berariaz horretarako diseinatutako tresna informatikoa erabili da, Gazte Planaren jarraipena eta ebaluazioa errazteko. Aplikazio informatikoa web-ingurunean garatuta dago, Planean parte hartzen duten erakundeek beren gazte-politikei buruzko informazioa eman dezaten, beren datuak kudea ditzaten eta haien jarraipen handiagoa lor dezaten.

2024ko Plan Operatiboa egiteko orduan indarrean zegoen gobernu-egiturari jarraitu zaio (XII. legegintzaldia). Hala ere, Plan Operatibo honetan jasotako informazioa gobernu-egitura berrira egokituko da 2024rako programatutako ekintzen ebaluazio-faseari ekiten zaionean.

Txosten honen edukiak, sarrerako lehen kapitulu horretaz gain, bigarren kapitulu bat ere badu. Kapitulu horretan, V. Gazte Planean eragina duten Eusko Jaurlaritzaren barruan sustatutako plan estrategikoak eta ekimenak jasotzen dira. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) duen lotura islatzen da.

Hirugarren kapituluak 2024ko programazioaren testuingurua definitzen du, "Gazteen adierazleak. Euskadiko Gazteen Panorama" oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren mendekoa den Gazteen Euskal Behatokiak egina.

Azkenik, 2024ko Plan Operatiboa bera jasotzen da, programatutako ekintzen xehetasunarekin V. Gazte Planeko ardatzen, helburu estrategikoen eta esku-hartze ildoen arabera. Gainera, txosten honen amaieran fitxa indibidualizatuak aurki aditezke, 2024ko ekitaldirako programatutako aurrekontuaren, ekintzaren jarraipena egiteko erabiliko den munta-adierazlearen eta finkatutako xede-balioaren inguruko informazioarekin.



2.

V. GAZTE PLANEAN ERAGINA DUTEN EUSKO JAURLARITZAREN PLANAK ETA ESTRATEGIAK

2. V. Gazte Planean eragina duten Eusko Jaurlaritzaren planak eta estrategiak

2.1. V. Gazte Planaren eta Eusko Jaurlaritzaren beste plan estrategiko batzuen arteko lotura

V. Gazte Plana lerrokatuta dago Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen plan eta ekimen hauekin:

- **Ekonomia eta enplegua:**
 - Enpleguaren Euskal Estrategia 2030
 - Enplegu Plan Estrategikoa 2021-2024
 - Gizarte Ekonomiako Sailarteko Plan Estrategikoa 2021-2024
 - Lanbideren Plan Estrategikoa 2022-2026
 - Euskadiko Erakundearteko Ekintzailatza Plana 2021-2024
 - Berpiztu Programa, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzea 2020-2024
 - Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia 2021-2026
- **Gazteria eta erronka demografikoa:**
 - Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategia
 - Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategia
- **Berdintasuna:**
 - EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia
 - Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030erako Estrategia
 - Euskadin soldata-arrakala murrizteko Ekintza Plan Operatiboa 2022-2025
- **Hezkuntza:**
 - Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana 2022-2024
 - EAEko Hezkuntza Orientatzeko Estrategia 2023-2026
 - Orientazio Plana: DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa 2023-2026
 - Unibertsitate Sistemaren Plana 2023-2026
 - Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana
 - Aisialdiko hezkuntza sustatzeko 2030erako Euskal Estrategia
 - (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia
 - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Ekintza Plana 2021-2025
 - Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana 2019-2022 (indarrean)
 - Euskal hezkuntza-sistemarako hezkidetzako II. Plana 2019-2023 (indarrean)
 - Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako Hezkuntza Arretarako Plana 2019-2022 (indarrean)
 - Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategia - 2025eko Kanpo Ekintzako Plana
- **Gizarte-politikak eta integrazioa:**
 - EAEko familiei laguntzeko Erakundearteko IV. Plana 2018-2022 (indarrean)
 - EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2023-2026

- Udaberri 2024. Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Plana
 - Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana (2022-2024 luzapena)
 - Gizarteratzeko V. Euskal Plana 2022-2026
 - Gazte Justiziaren V. Plana 2020-2024
 - Haur eta Nerabeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Estrategia 2022-2025
 - Herritartasunari, Immigrazioari eta Asiloari buruzko Kulturarteko VI. Plana 2022-2025
 - Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2021-2024
 - Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia Euskadin
 - Euskadiko Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategiaren Ekintza Plana
- **Ingurumena eta kontsumo jasangarria:**
 - Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030erako Gida Plana
 - Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguruko eta Iraunkorreko Plan Estrategikoa 2021-2025
 - Bultzatu 2050 Hiri Agenda
 - Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Plana 2021-2024
 - Euskadiko Energia Estrategia 2030
 - Kontsumobideren Plan Estrategikoa 2022-2024
 - **Osasuna eta kirola:**
 - Mugiment Jarduera Fisikoaren Plan Zuzentzailea
 - Osasun Plan Estrategikoa 2030
 - Osasun Esparru Estrategikoa 2021-2024
 - Adikzioen VIII. Plana 2022-2026
 - **Etxebizitza:**
 - Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea 2021-2023 (indarrean)
 - Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036
 - **Euskara eta kultura:**
 - Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024
 - Kirolean Euskara Sustatzeko Plana 2021-2024
 - Euskara Esparru Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023 (indarrean)
 - Kultura Plan Estrategikoa 2028
 - **Zientzia eta teknologia:**
 - Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP)
 - Euskal I+G+b estrategia Europan 2021-2030
 - Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025
 - **Zeharkako programak:**
 - Euskadiko 2030 Agenda
 - XII. Legegintzaldiko Gobernu Programa 2021-2024
 - Euskal Estatistika Plana 2023-2026

2.2. V. Gazte Plana eta Garapen Iraunkorreko Helburuak

Jarraian, zuzeneko harremana duten GIHak, Nazio Batuekin bat datorren definizioa eta lotura zuzenena duten xedeak jasotzen dira:



Pobrezia-agerpenen barruan sartzen dira: gosea, malnutrizioa, etxebizitza duinen falta eta oinarrizko beste zerbitzu batzuen eskuragarritasun mugatua, besteak beste, hezkuntzarena edo osasunarena. Diskriminazioa eta gizarte-bazterkeria ere sartzen dira. Pobreziarekin amaitzeko, ekonomiaren hazkuntzak inklusiboa izan behar du, enplegu jasagarriak sortzeko eta berdintasuna sustatzeko.

Harremana duten xedeak

- 1.2 2030erako, definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaitea.
- 1.3 Nazio-mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, 2030erako, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.
- 1.5 2030erako, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoek eraginpean egotea eta ondoriozko ahultasuna murriztea.
- 1.b Nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailan araudi-esparru sendoak sortzea, pobreen aldeko garapen-estrategien oinarriaren gainean, genero-kontuak aintzat hartzen dituztenak, pobreziaarekin amaitzeko neurrietan inbertsio bizkortua bultzatzeko.



Elikaduraren eta nekazaritzaren sektoreek garapenerako giltzarri diren konponbideak eskaintzen dituzte, gosea eta pobrezia deuseztatzeko ezinbestekoak. Ondo gauzatuz gero, nekazaritzak, basogintzak eta akuikulturak janari nutritiboz horni dezakete planeta osoa. Horrez gain, dirusarrera egokiak sor ditzakete, landako jendearen garapenari lagun diezaiokete eta ingurumena babes dezakete.

Harremana duten xedeak

- 2.1 2030erako, gosearekin amaitzea eta pertsona guztiek, bereziki pobrezia- eta kalteberatasun-egoeran daudenek, edoskitzaroan dauden haurrak barne, urte osoan elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.
- 2.2 2030erako, malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, nazioartean hazkundearen atzerapenaren eta 5 urtetik beherako umeen ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun daudenen eta bular-emaile diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea.



Azken hamarkadetan aurrerapen handiak egin dira bizi-itxaropena handitzeari eta haurren eta amen hilkortasunarekin lotutako heriotza-kausa ohikoenetako batzuk murrizteari dagokienez. Halaber, hobekuntzak lortu dira ur garbiaren horniduran eta saneamenduan, malariaren, tuberkulosian, poliomielitisean murrizketan eta GIB/HIESaren hedapenean. Hala ere, askoz ekimen gehiago behar dira gaixotasun-sorta zabal bat erabat desagerrarazteko eta osasunari buruzko gai iraunkor eta sortu berriei aurre egiteko.

Harremana duten xedeak

- 3.3 2030erako, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuekin amaitzea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
- 3.4 2030erako, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.
- 3.5 Substantzia adiktiboen abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desagokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.
- 3.7 2030erako, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzea estrategia eta programa nazionaletan.



Kalitatezko hezkuntza bat lortzea da pertsonen bizitza hobetzeko eta garapen jasangarrirako oinarria. Aurrerapen handiak lortu dira hezkuntzaren sarbideari – maila guztietan – eta eskolatze-tasen areagotzeari dagokienez, batez ere, emakumeen eta nesken kasuan. Gutxieneko alfabetatze-maila neurri handian areagotu da, baina ahalegin gehiago egin behar da hezkuntza unibertsalaren helburuen lorpenean aurrerapen handiagoak lortzeko. Adibidez, nesken eta mutilen arteko berdintasuna lortu da munduko haur-hezkuntzan, baina herrialde gutxi dira helburu hori hezkuntzaren maila guztietan lortu dutenak.

Harremana duten xedeak

- 4.1 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela ziurtatzea; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-emaizta egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.
- 4.2 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen haurtzaroan eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.
- 4.3 2030era bitarte, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntza barne.

- 5 GENDERO BERDINTASUNA**
- 

Harremana duten xedeak

- ## #Vgazte plana

ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne.

- 5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.
- 5.6 Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, baita ugalketa eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Pekineko Ekintza Plataformarekin eta aztertze konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera.
- 5.a Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorritik.
- 5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiararena, emakumeen ahaldundutzea sustatzeko.
- 5.c Politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskato guztien genero-berdintasuna eta ahaldundutzea sustatzeko, maila guztietan.




Taxuzko lana lortzeko aukerarik eza, inbertsio nahiko eza eta kontsumo baxuak direla eta, gizarte demokratikoen azpian dagoen oinarritzko kontratu soziala higatzen ari da: hain zuzen, guztiok aurrerapena partekatzeko dugun eskubidea. Garapen ekonomiko jasangarria lortzeko, gizarteek baldintza egokiak sortu beharko dituzte pertsonen kalitatezko enpleguak eskura ditzaten, ekonomia sustatuz eta ingurumena kaltetu gabe. Lan egiteko adinean dagoen populazio osoarentzat ere lan-aukerak egon beharko dira, lan-baldintza duinekin

Harremana duten xedeak


- 8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, alderdi hauek babestuz: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.
- 8.5 Hemendik 2030era bitarte, enplegu osoa eta produktiboa eta taxuzko lana lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta, halaber, balio bereko lanarengatik ordainsari berdina eman dadila lortzea.
- 8.6 2021ean zehar, nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.
- 8.7 Berehalako neurri eraginkorrak hartzea lan bortxatuarekin amaitzeko, amaiera ematea egungo esklabotasun-moduei eta pertsonen salerosketari,

- 8.8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, migratzaileak barne, eta, bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.
- 8. b 2021ean zehar, gazte-enplegurako mundu-mailako estrategia bat garatzea eta martxan jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.



Harremana duten xedeak

- 10.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edozein dela ere.
- 10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.
- 10.4 Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka qero eta berdintasun handiagoa lortzea.



- 11.1 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.
- 11.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrak, desgaitasunen

bat dutenak eta adineko pertsonak).

- 11.7 Hemendik 2030era bitarte, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.



Kontsumo eta ekoizpen jasangarria egiteko, baliabideen erabilera eraginkorra, eraginkortasun energetikoa eta azpiegitura jasangarriak sustatu behar dira, eta oinarritzko zerbitzuen eskuragarritasuna, enplegu ekologiko eta egokiak eta guztiontzako bizi-kalitate hobea erraztu behar dira. Horren aplikazioak laguntza ematen du garapenerako plan orokorrak lortzeko, ekonomiari, ingurumenari eta gizarteari loturiko etorkizuneko kostuak murrizteko, lehiakortasun ekonomikoa handitzeko eta pobrezia murrizteko.

Harremana duten xedeak

- 12.2 Hemendik 2030era bitarte, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.
- 12.3 Hemendik 2030era bitarte, erdira murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua, eta ekoizpen eta hornikuntzako kateetan elikagai-galerak murriztea, uztaren ondorengo galerak barne.
- 12.5 Hemendik 2030era bitarte, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebenitu, murriztu, birziklatu eta berrerabiltzeko jardueren bitartez.
- 12.8 Hemendik 2030era bitartean, mundu osoko pertsonak garapen iraunkorrerako eta bizitza-estiloetarako beharrezkoak diren informazioa eta ezagutzak naturarekin bat datozela ziurtatzea.



Helburu hau klima aldaketa eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzera zuzenduta dago. Klima aldaketak kontinente guztien herrialdeei eragiten die, euren ekonomian, eta pertsonen eta komunitateen bizitzan eragin negatiboa sortuz. Etorkizunean, ondorioak okerragoak izango direla espero da. Eguraldi ereduak aldatzen ari dira, itsas mailak igozten ari dira, klima-gertaerak gero eta muturrekoagoak izaten ari dira eta berotegi-efektuko gasen isuriak historiako maila altuenetan daude. Honen ondoren, ezer egiten ez bada, munduko azaleraren batez besteko tenperaturaren igoera 3 gradu ingurukoa izan liteke.

Harremana duten xedeak

- 13.3 Heziketa, sentsibilizazioa eta giza eta erakundearen gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hari moldatzeko, bere efektuak murrizteko eta abisu goiztiarra lortzeko.



Helburu hau gizarte baketsu eta inklusiboen sustapenean oinarritzen da, garapen jasangarria, guztiontzako justizia eskuragarria eta maila guztietan arduratzen eta eraginkorrak diren instituzioen eraikuntza lortzeko. Gatazkaren bat jasaten duten herrialdeetan, Lehen Hezkuntzan eskola uzten duten haurren tasa % 50 izan zen 2011an, hau da, 28,5 milioi hurrek utzi zuten eskola.

Harremana duten xedeak

- 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.
- 16.2 Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei.
- 16.9 Hemendik 2030era bitarte, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere, jaiotzen erregistroaren bidez.



Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza gauzatzeko eta biziberritzeko bitartekoak indartzea

Harremana duten xedeak

- 17.16 Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza indartzea, ezagutza, gaitasun tekniko, teknologia eta baliabide finantzarioen trukea mobilizatu eta sustatzen duten interesdun anitzen arteko aliantzen bidez, herrialde guztietan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen laguntzeko.
- 17.17 Herri-feretan, publiko-pribatuetan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak eratzea bultzatzea eta sustatzea, elkarleen esperientzia eta baliabideak lortzeko estrategiak aprobetxatuz.



3.

GAZTERIA EUSKADIN

3. Gazteria Euskadin

Kapitulu hau Gazteen Euskal Behatokiak "*Euskadiko Gazteen Panorama 2023. Gazteen adierazleak*" txostenean argitaratutako azkeneko datuetan oinarritzen da. Bertan, honako arlo hauek hartzen dira kontuan: Demografia eta biztanleria, Hezkuntza, Enplegua eta egoera ekonomikoa, Emantzipazioa eta etxebizitza, Osasuna, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, Balioak eta jarrerak eta Aisialdia.

Jarraian, Gazte Planaren esparruan aintzat hartutako arlo bakoitzerako EAEko gazterari buruzko funtsezko adierazleak aurkezten dira.

3.1. Testuinguru demografikoa


Gazteak Euskadiko biztanleria osoaren % 14,6 dira

2023ko urtarrilaren 1ean, Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko **319.744 gazte** zeuden, hau da, **biztanleria osoaren % 14,6**. Gazteen sexuaren arabera banaketak erakusten du % 51,5 gizonezkoak direla (164.596) eta % 48,5 emakumezkoak (155.148).

Bost urteko adin-taldearen arabera biztanleria gaztearen banaketa nahiko homogeneoa da, antzeko pisu erlatiboekin: 15-19 urteko taldeak kolektiboaren % 34,9 hartzen du (111.517 pertsona), 20-24 urteko taldeak % 33,1 (105.876 pertsona) eta gainerako % 32,0a 25 eta 29 urte bitarteko taldeari dagokio (102.351 pertsona).

3.1 grafikoa Biztanleria gaztea (15-29 urte), bost urteko adin-taldearen eta sexuaren arabera, 2023an

(zenbaki absolutuak)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal estatistika).


Lurralde historikoen arabera, Euskadiko 15-29 urteko biztanleriaren % 50,8 Bizkaian bizi da (162.592 pertsona), % 34,4 Gipuzkoan (109.984 pertsona) eta gainerako % 14,8a Araban (47.168 pertsona).

Gauzak horrela, **gazteen indizeak** (15 eta 29 urte bitarteko pertsonen proportzioa biztanleria osoaren gainean) bilakaera zertxobait positiboa izan du; izan ere, 2016-2017 aldiko erregistrotik (% 13,1) % 14,6ra igaro da 2023an, eta horrek esan nahi du aldi horretan (2016-2023) ehuneko puntu bat baino gehiago hobetu dela.

Hala ere, Euskadi da oraindik ere gazteria-indize baxuena duen eremuetako bat, Estatuko batez bestekoa (% 15,9) baino txikiagoa baita, eta indize baxuena duen bosgarren autonomia-erkidegoa, Kantabriaren (% 13,8), Gaztela eta Leonen (% 13,4), Galiziaren (% 12,9) eta Asturiasen (% 12,0) atzetik. Halaber, Euskadiko gazteen indizea Europako batez bestekoa (% 16,2) baino txikiagoa da, eta Herbehereetako (% 18,8) edo Danimarkako (% 19,1) erregistrorik onenetatik urrun dago, adibidez. Nolanahi ere, biztanleriaren zahartzea joera partekatua dela egiaztatu da, Europako herrialde bakar batek ere ez baitu % 20tik gorako gazteria-indizerik.

3.2 grafikoa Euskadiko gazteen indizearen bilakaera

(%)




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuak oinarri harturik
(Biztanleen udal estatistika)*

Zazpi gaztetik bat atzerritarra da

15 eta 29 urte bitarteko **atzerritarrak 49.389 dira**, azken hamarkadako kopururik handiena, eta gorakada handia izan du 2022rekiko (+% 11,0). Horrela, Euskadiko zazpi gaztetik bat atzerritarra da (% 15,4), biztanleria gaztean duen garrantzia indartuz.

3.3 grafikoa Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko biztanle atzerritarren bilakaera
(zenbaki absolutuak)




Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal estatistika)

Ama lehen aldiz izateko batez besteko adina: 32,4 urte

Euskal emakumeek amatasun-erabakiak atzeratzen jarraitzen dute; hala, **lehen seme-alaba izateko emakumeen batez besteko adina 32,4 urtekoa da**. Hala ere, aipatzekoa da datu hori nabarmen aldatzen da amen nazionalitatearen arabera.

3.4 grafikoa Ama lehen aldiz izateko batez besteko adinaren bilakaera
(nazionalitatearen arabera, urteak)



Iturria: EIN (Oinarrizko Adierazle Demografikoak)

3.2. Hezkuntza

Euskadik Estatuko eskola-uzte tasarik txikiena du: % 5,6


Eskola-uzte goiztiarraren tasak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (ISNI 2) gehienez ere amaitu eta ikasketarik edo prestakuntzarik jarraitu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa neurtzen du.

Eguneratutako emaitzek (2022) erakusten dute eskola-uzte goiztiarraren tasa % 5,6koa dela Euskadin, Estatuko ratorik txikiena (% 13,9) eta Europako batez bestekoa (% 9,6) baino txikiagoa. Gainera, bilakaerak erakusten du eskola-uztearen beherakada¹ etengabea izan dela Euskadin, azken hamarkadan erdira murriztu baita (% 12,4tik % 5,6ra).

Emakumeen kolektiboak eskola-uzte tasa txikiagoa du gizonenarekin alderatuta (% 4,2 eta % 7,0, hurrenez hurren), eta emaitza egonkorra da aztertutako aldi osoan, nahiz eta, pixkanaka, bi kolektiboen arteko aldea murrizten ari den.

3.5 grafikoa Eskola behar baino lehen uztearen tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) datuetan oinarrituta.

¹ 2021eko datua oso baxua izan zen (% 4,8), pandemiaren eraginaren ondorio izan zitekeena, eta 2022ko ratioa maila normalizatuagoetara itzuli da (% 5,6), eskola uzte goiztiarraren tasaren beheranzko dinamika baten barruan.


Gazteen bi herenek (30-34 urte) hirugarren mailako ikasketak dituzte

Goi-mailako hezkuntzaren tasak hirugarren mailako titulazioa duten 30-34 urte bitarteko biztanleen ehunekoari egiten dio erreferentzia (INSN 5A, B eta 6), adin-talde horretako pertsona guztiekiko. Hirugarren mailako titulazioak gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-ikasketak hartzen ditu, baita goi-mailako prestakuntza-zikloak ere.

Nabarmentzekoa da 30 eta 34 urte bitarteko gazteen bi herenek goi-mailako titulazioa dutela (% 65,9), eta ratio hori nabarmen hobetu da azken hamarkadan. Gainera, emakumeek gizonen kolektiboari dagokion ratioa gainditzen dute (% 68,0 eta % 63,7, hurrenez hurren).

3.6 grafikoa 30 eta 34 urte bitarteko gazteen goi-hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) datuetan oinarrituta.

Zientzian eta teknologian graduatutako pertsonen herena emakumeak dira

Erantsitako grafikoan ikus daitekeenez, **zientzian eta teknologian graduatutako 35 urtetik beherako** herena emakumeak dira, modu egonkorrean. Zehazki, azken ikasturtean (2022-2023), emakumeen kolektiboaren garrantzi erlatiboa % 33,1ekoa izan da, eta horrek agerian uzten du zientzia eta teknologiari lotutako unibertsitate-ikasketetan emakumeen presentzia txikia dela, eta profil hori ez dela hobetzen.

3.7 grafikoa Zientzian eta teknologian graduatutako emakumeen ehunekoaren bilakaera

(%)



Iturria: EUSTAT (Unibertsitate Estatistika)

Ikasle gehienek (unibertsitateaz kanpokoak) euskaraz egiten dituzte ikasketak

2023-2024 ikasturtean, unibertsitateaz kanpoko¹ ikasleen % 69,1ek **D hizkuntza-ereduan** egiten ditu ikasketak (euskaraz, gaztelania irakasgaitzat hartuta). Ehuneko hori etengabe handitu da azken hamarkadan, eta euskara komunikazio-hizkuntza gisa finkatu da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan.


Hala ere, lurralde historikoen arteko aldeak nabarmenak dira; D ereduaren penetrazioa txikiagoa da Araban (% 54,7) eta Bizkaian (% 64,1), Gipuzkoan (% 83,1) baino.

D ereduaren garrantziak **gazteen artean euskara gehiago ezagutzen** lagunduko zukeen. Eustaten Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren arabera (2022), 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 79,3k dio euskaraz ondo hitz egiten duela. Ehuneko hori % 81,8ra igotzen da emakume gazteen artean, eta % 77,0koa da adin horretako gizonen artean.

Gainera, nabarmentzekoa da euskararen ezagutzan izandako hobekuntza handia, euskaraz ondo hitz egiten duten gazteen proportzioa ehuneko 15 puntu igo baita 2014. urtearekin alderatuta (% 64,4).

3.8 grafikoa D hizkuntza ereduan matrikulatutako unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoaren bilakaera, ikasturtea hasteko urtearen arabera

(lurralde historikoaren arabera, %)



Iturria: EUSTAT (Hezkuntza-jardueraren estatistika).


¹ Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, hasierako lanbide-prestakuntzako programak eta helduen hezkuntza.

Hamar gaztetik ia sei hirueledunak dira: % 57,6

Hirueletasun-tasa kalkulatzeko, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ongi hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa hartzen da oinarri moduan. 2022an, Euskadiko hirueletasun-tasa % 57,6koa da, eta adierazle hori nabarmen hobetu da aztertutako aldian.

3.9 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen hirueletasunaren bilakaera

(lurralde historikoen arabera, %)



Iturria: EUSTAT, Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

3.3. Enplegua eta ekonomia-egoera

EAEko gazteen okupazio-tasa % 43,0koa da


Lana duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin-talde horretako pertsona guztiekiko, % 43,0koa da 2023an. 2010etik izandako okupazio-tasarik handiena da, gazteen enplegarritasuna bultzatzen duen lan-merkatuaren bilakaera positiboarekin -2023an maximo historikoetan- bat datorrena.

Gainera, tasa hori % 76,4ra igotzen da 25-29 urteko gazteen artean, 16-24 urteko taldearen okupazio-tasa -oraindik ikasten ari den kolektiboa- nabarmen gaindituz.

Bestalde, gizonen okupazio-tasa (16-29 urte) emakumeena baino pixka bat handiagoa da (% 44,6 eta % 41,3, hurrenez hurren).

3.10 grafikoa 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasaren bilakaera

(%)




Iturria: EUSTAT, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

Lanbide Heziketaren enplegarritasun handia

Lanbide Heziketako tituludunen % 83,2 ikasketak amaitu eta urtebetera lanean ari ziren. Eraitza horrek agerian jartzen du prestakuntza horren enplegarritasuna handia dela. Eraitza partekatua da gizonentzat eta emakumeentzat (% 84,8 eta % 80,8, hurrenez hurren).

3.11 grafikoa Lanbide Heziketako promozioen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta urtebetera




Iturria: LANBIDE (Lan-munduan sartzeari buruzko estatistikak)

Unibertsitatearen enplegarritasun handia

Era berean, euskal unibertsitateen enplegarritasun handia egiaztatzen da, eta erreferentziako aldia unibertsitate-ikasketak amaitu eta hiru urtera dagoen lan-egoera da. Hala, ikasketak amaitu dituzten **hamar pertsonatik bederatzik ordaindutako enplegatu**, eta antzeko emaitza dute gizonak eta emakumeek (% 91 eta % 89, hurrenez hurren).

3.12 grafikoa Euskal unibertsitateetako promozioen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta hiru urtera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: LANBIDE (Lan-munduan sartzeari buruzko estatistikak)


Gazteen langabezia-tasak behera egin du (16-29 urte bitarte): % 12,6

Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren gainean kalkulatzeko da, eta enplegurik ez duten baina lan egiteko prest dauden eta lana modu aktiboan bilatzen ari diren pertsonen egiten diren erreferentzia. 2023an, gazteen langabezia-tasa (16-29 urte) % 12,6koa da, azken hamarkadako tasarik txikiena.

Gainera, ia ez dago alderik generoaren arabera, eta emakumeen langabezia-tasa (16-29 urte) gizonena baino pixka bat txikiagoa da (% 12,0 eta % 13,0, hurrenez hurren).

3.13 grafikoa 16 eta 29 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)


Iraupen luzeko langabezia-tasaren jaitsierarekin batera (16-29 urte): % 4,4

Iraupen luzeko langabezia-tasak adierazten du hamabi hilabete jarraian baino gehiago langabezian daramaten biztanleria aktiboaren ehunekoa.

Gazteei dagokien tasa (16-29 urte) % 4,4koa da, 16 urte eta gehiagoko biztanleria osoaren tasaren antzekoa (% 4,0). Gainera, bi kasuetan, iraupen luzeko langabezia-tasak behera egin du, eta 2023an azken hamarkadako tasarik onenetakoa izan da, enpleguaren dinamismoaren isla.

3.14 grafikoa Iraupen luzeko langabezia-tasaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren eta 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean

(%)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Behin-behinekotasunaren jaitziera (16-29 urte): % 46,0

Soldatapeko enplegua duten 16-29 urte bitarteko gazteen % 46k **aldi baterako kontratua** du, Euskadiko soldatapeko biztanleria osoari dagokion tasa bikoiztuz (% 21,4). Hala ere, bilakaera positiboa izan da, behin-behinekotasuna murriztu egin baita aldi baterako kontratazioa mugatzen duen azken lan-erreformari lotuta.

3.15 grafikoa 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen eta 16 urteko eta hortik gorako soldatapeko biztanle guztien aldi-baterakotasun tasaren bilakaera

(%)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Lanaldi partzialeko enpleguak gora egin du: % 32,4

Lanaldi partzialeko enplegu-tasak adierazten du astean 30 ordutik behera lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Emaitzek erakusten dute gazteen heren batek (% 32,4) lanaldi partzialean lan egiten duela, goranzko profilarekin eta eragin handiagoarekin emakume gazteen artean (% 42,2 eta % 23,8, hurrenez hurren).

3.16 grafikoa Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean

(sexuaren arabera, %)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)


Hamar gaztetik zortzik (15-29 urte) beren prestakuntzarekin bat datorren lana aurkitzeko itxaropena dute

Enplegu egokituaren espektatibak % 80koak dira, eta agerian geratzen da 15-29 urteko gazte gehienek ikasketak amaitzean beren prestakuntzarekin bat datorren enplegu bat aurkitzeko itxaropena dutela. Gainera, ratio hori hobetu egin da azken hamarkadan, eta lan-merkatuaren hobekuntza islatzen du, gazteentzako enplegu-aukerak erraztuko lituzkeena.

Enplegu egokituaren espektatibak zertxobait hobeak dira gizonen artean (% 82 eta % 77, hurrenez hurren), eta bi kolektiboentzat oso positiboak dira.

3.17 grafikoa Ikasketak amaitzean ahokatutako lana bilatzeko igurikimenen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira seriea)

Gazteen batez besteko soldata garbia (18-34 urte) 1.416 eurokoa da hilean

18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte **baten batez besteko soldata garbia** (aparteko ordainsari hainbanatuekin) 1.416 eurokoa da hilean, baina 1.299 eurora arte murrizten da emakumeen artean.

3.18 grafikoa 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen batez besteko soldata garbiaren bilakaera

(sexuaren arabera, eurotan)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia INEren Lan Kostuaren Hiruhileko Inkestan, Soldata Egituraren Inkestan, Soldata Egituraren urteko Inkestan, Bizi Baldintzen Inkestan eta Biztanleria Aktiboaren Inkestan oinarrituta.

Norberaren konturako enpleguaren presentzia txikia gazteen artean: % 4,9

20-29 urte bitarteko gazte okupatuen % 4,9k soilik **egiten du lan norberaren kontura**, eta soldatapeko enpleguaren prebalentzia nabarmentzen da. Gainera, autoenplegu-tasa Europako batez bestekoa (% 6,5) baino pixka bat txikiagoa da.

3.19 grafikoa Norberaren konturako enpleguaren bilakaera 20 eta 29 urte bitartekoen artean, Euskadin eta EB-27n

(%)



Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Lan Merkatuaren Errolda eta Euskadiko Gazteak 2020/2021.


Laneko ezbehar-tasak (16-34 urte) beherantz jarraitzen du

Laneko **ezbehar-tasaren indizeak** baja eragin duten lan-istripuen kopurua adierazten du afiliatutako mila pertsonako. Lan-istripuek lantokian eta in itinere gertatutakoak barne hartzen dituzte.

2022an, 16-34 urteko gazteei dagokien indizea 38,9koa da, eta azken hamarkadako ezbehar-tasa txikienetakoa da, 2020ko erregistroak soilik gainditzen duena (35,3), neurri handi batean pandemiak eta lan-merkatuan izandako ondorioek baldintzatuta, laneko ezbehar-tasaren intzidentzia txikiagoa eragin baitzuten.

Hala ere, ezbehar-tasak handiagoa izaten jarraitzen du gizonen artean (% 54,7), 16-34 urteko emakumeen indizea bikoiztuz (% 21,2). Alde hori, neurri handi batean, industrian eta eraikuntzan gizonen presentzia handiagoa dutelako gertatzen da, sektore horietan ezbehar-tasa handiagoak baitaude.

3.20 grafikoa 16 eta 34 urte bitarteko gazte landunen lan-ezbeharren indizearen bilakaera sexuaren arabera




Iturria: OSALAN (Laneko ezbehar-tasaren estatistikak)

Benetako pobreak behera egin du etxe gazteetan

35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeen pobrezia-tasa errealak % 12,7ra jaitsi da, eta azken urteetan beheranzko joera izan du. Azken erregistroak erakusten du emakumeen egoera okerragoa dela (% 14,6 eta % 11, hurrenez hurren).

3.21 grafikoa Pobrezia-tasa errealaren bilakaera gazteen etxeen artean

(sexuaren arabera, %)



*Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
(Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta seriea)*


3.4. Emantzipazioa eta etxebizitza

Emantzipatzeko batez besteko adina: 29,3 urte

2022an, EAEko biztanleen **batez besteko emantzipazio-adina** 29,3 urtekoa da; hau da, Europako batez bestekoa baino hiru urte beranduago (26,4 urte), baina Estatu osokoa baino pixka bat txikiagoa (30,3 urte). Gainera, gizonak emakumeak baino pixka bat beranduago emantzipatzen dira batez beste (29,9 eta 28,5 urte, hurrenez hurren).

3.22 grafikoa Emantzipatzeko batez besteko adina Euskadin eta EB-27n. 2022

(urteak)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta EUROSTAT (Gazteei buruzko datu estatistikoak, Youth data)

Emantzipazio-tasa (18-34 urte): % 34,2

18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 34,2 emantzipatuta bizi da, 2021eko tasa zertxobait hobetuz (% 32,9), baina azken hamarkadan atzera egin du (% 44,4, 2012an). Emakumeek gizonen emantzipazio-tasa gainditzen dute (% 37,6 eta % 30,9, hurrenez hurren), eta 30-34 urteko pertsona gehienak emantzipatuta daude (% 75,0), 18-24 urteko taldean ez bezala (% 4,5).

3.23 grafikoa 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen emantzipazio-tasa. 2022

(sexuaren eta adin-taldeen arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Etxebizitza eskuratzea (jabetzan edo alokairuan) ahalegin ekonomiko handia da

Etxebizitza eskuratzeko kostua pertsona batek etxebizitza ordaintzeko erabili behar duen hileko soldata garbiaren proportziotik abiatuta kalkulatzen da.

Jabetzako etxebizitza librearen kasuan, kalkulatzen da 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko batek bere soldata garbiaren **% 56,9 erabili behar duela hipoteka ordaintzeko**. Ahalegin ekonomiko hori handiagoa da emakume gazteen artean (% 62,0 eta gizonen artean % 53,7), eta, batez ere, 18 eta 24 urte bitartekoaren artean nabarmentzen da (% 79,8).


3.24 grafikoa Etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko kostua 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen artean. 2022



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia. Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin.

Alokairuko etxebizitza librearen kasuan, 18-34 urteko gazteek **soldata garbiaren % 51,9 erabiltzen dute errenta ordaintzeko**, eta tasa hori jabetzako etxebizitzarako kalkulaturako kostua baino zertxobait txikiagoa da. Ahalegin ekonomiko handiagoa egiten dute emakumeek (% 56,6) eta 18 eta 24 urte bitarteko gazteenek (% 72,9).

3.25 grafikoa Alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko kostua 18-34 urteko soldatapeko gazteen artean. 2022




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia. Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin.

Alokairua, etxebizitza eskuratzeko aukera gazteen % 37,1entzat

Alokairuan emantzipatutako 18-34 urteko gazteen ehunekoak gora egin du argi eta garbi azken urteetan, baina 2021ean pixka bat behera egin du, % 37,1ean kokatuz.

3.26 grafikoa Alokairuan bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoaren bilakaera

(%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.


3.5. Osasuna

Osasunarekiko gogobetetasuna: 7,2/10

Oro har, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen **osasunarekiko gogobetetasuna** positiboa da, 10etik 7,2ko balioespenarekin; hala ere, puntuazio horrek behera egin du azken urteetan (8,8 2016an). Balorazioa pixka bat handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (7,4 eta 7,0, hurrenez hurren, 2023an).

3.27 grafikoa 15-29 urte bitarteko pertsonen osasunarekiko duten gogobetetze-mailaren bilakaera

(eskala, 0etik 10era)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).

Droga-mendekotasuneko tratamendua hastea: 1,9/milako

Droga-mendetasunagatik tratamenduren bat hasi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera nahiko egonkorra da (1,9, 2022an, eta 2,2ko maximoa erregistratu zen 2010ean eta 2012an). Gizonen eta emakumeen arteko aldea esanguratsua da, eta joera handiagoa ikusten da gizonen artean (2,9 gizon mila biztanleko, 0,9 emakumerekin alderatuta).

3.28 grafikoa Droga-mendetasunagatik tratamenduren bat hasi duten gazteen bilakaera 1.000 biztanleko




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Toxikomanien Informazio Sistema.

Antsietate eta/edo depresio sintomen prebalentzia: % 18,5

15-29 urte bitarteko pertsonen % 18,5ek **antsietate- edo depresio-sintomak** izan ditu inkesta egin eta azken lau asteetan. Ehuneko hori % 25,0raino igotzen da emakume gazteen artean, eta % 12,3ra jaisten da gizonen kolektiboan. Erregistratutako bilakaerak agerian uzten du antsietate- edo depresio-sintomen intzidentzia handiagoa dela gazteen artean, ratio hori handitu egin baita (% 13,7tik % 18,5era) 2013 eta 2023 bitartean.

3.29 grafikoa Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentziaren bilakaera 15-29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).

Jarduera fisikoa oso zabaldua dago gazteen artean: % 89,9

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 89,9k adierazi du **jarduera fisiko** moderatua edo bizia egin duela kontsultaren aurreko astean. Eraitza hori partekatzen dute emakumeek eta gizonek (% 89,1 eta % 90,6), baita gazteen adinaren arabera ere.

3.30 grafikoa Jarduera fisiko osasungarria egin duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa 2023an

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).

Gazteen obesitate-tasa (15-29 urte): % 4,9

15-29 urte bitarteko gazteen % 4,9k 30 baino gehiagoko gorputz-masaren indizea (GMI) du, eta zenbateko horrek pertsona gizenaren kalifikazioa ezartzen du. Tasa horrek nahiko profil egonkorra erakusten du, baina % 5etik beherakoa izan da azken bi kontsultetan.

3.31 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen obesitate-tasaren bilakaera

(%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).

Alkohol-kontsumo arriskutsua (15-29 urte): % 37,6

15-29 urte bitarteko hamar gaztetik ia lauk **alkohola kontsumitu dute arriskuko kantitateetan** (astean 14 eta 7 alkohol unitate estandar baino gehiago, gizonentzat eta emakumeentzat, hurrenez hurren) kontsulta egin aurreko azken hilabeteen.

Hala ere, alkoholaren gehiegizko kontsumoak behera egin du pixkanaka 2008tik, eta serieko baliorik txikienera iritsi da 2023an.

Azpitarratzekoa da emakume gazteek gaintitu egiten dutela gizonezkoen gehiegizko alkohol-kontsumoaren ratioa (% 34,4 eta % 30,8, hurrenez hurren).

3.32 grafikoa Alkoholaren gehiegizko kontsumoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean
(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta).

Tabakoaren ohiko kontsumoaren etengabeko jaitsiera: % 17,4

2023an, gazteen artean **tabakoaren ohiko kontsumoa** % 17,4ra jaisten da, serieko zifra txikiena izanik. Gainera, ia ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean (% 17,8 eta % 17,0, hurrenez hurren).

3.33 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta).

Kalamuaren kontsumoak behera egin du: % 9,7

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 9,7k adierazi du kalamua erre duela inkesta egin aurreko azken 30 egunetan. Kalamuaren kontsumoa zabalduago dago gizon gazteen artean (% 13,8) emakume gazteen artean baino (% 5,2).

3.34 grafikoa Azken 30 egunetan kalamua kontsumitu duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta).

Jazarpen-pertzepzioa sare sozialetan: % 29,3


2023an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % **29,3k** sentitu zuen, noizbait, etengabeko mezuak, mehatxuak, iruzkin desatseginak, irainak eta abar bidaltzen zituen norbaiten jazarpena.

Sare sozialetako jazarpen-pertzepzioa handiagoa da emakume gazteen artean (% 36,3) gizon gazteen artean baino (% 22,6).

Bestalde, emaitza antzekoa da gazteen adinaren arabera; izan ere, sare sozialetan jazarpenaren pertzepzioa % 30 ingurukoa da aztertutako adin-maila bakoitzean (% 29,3, % 31,2 eta % 27,0, hurrenez hurren).

3.35 grafikoa Sare sozialetako jazarpenaren pertzepzioa gazteen artean. 2023

(sexuaren eta adin-taldeen arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

Sexu-transmisiozko infekzioen tasak gora egin du

2022an, **sexu-transmisiozko infekzioen 67,3 kasu berri** erregistratu ziren (infekzio gonokozikoa, sifilisa edo chlamydia) 15-29 urte bitarteko 10.000 gazteko. Azken hamarkadako tasarik handiena da, eta nabarmentzekoa da gizonen artean duen intzidentzia (73,6), baita emakumeen artean duen erregistrorik handiena ere (60,7).

3.36 grafikoa Sexu-transmisiozko infekzioen tasa gazteen artean. 2022

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, 10.000 biztanleko tasa)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, HIESaren Prebentzio eta Kontrol Plana.

Nerabeen haurdunaldi-tasa: 3,8 15 eta 17 urte bitarteko 1.000 emakumeko

Nerabeen haurdunaldi-tasa (jaiotza-kopurua gehi haurdunaldiaren borondatezko etendurak 15-17 urte bitarteko emakume nerabeen artean) **3,8 da adin horretako 1.000 neskako**, eta beheranzko profil argia du aztertutako aldian.

3.37 grafikoa 15 eta 17 urteko neska nerabeen haurdunaldi-tasaren bilakaera

(lurralde historikoen arabera, 1.000 pertsonako tasa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuetan eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroan oinarrituta.


Trafiko-istripuak eta suizidioa dira heriotza-kausa ohikoenak gazteen artean (15-29 urte)

2022an, 15-29 urte bitarteko gazteen **trafiko-istripuengatiko heriotza-tasa** 1,9 pertsonakoa da, adin-tarte horretako 100.000 gazteko.

Bestalde, **suizidioaren ondoriozko heriotza-tasa** 4,5 da 15-29 urteko 100.000 gazteko.

3.38 grafikoa Nork bere buruaz beste egiteagatiko edo trafiko istripuengatiko heriotzen tasaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean

(100.000 pertsonako tasak)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Hilkortasunaren erregistroa)


3.6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa: 9,8 emakume 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 emakumeko

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa 9,8koa da 15-29 urteko 1.000 emakumeko, eta azken hamarkadako erregistrorik handiena lortu du. Tasa horrek genero-indarkeriagatik salaketaren bat jarri duten emakumeen kopurua erakusten du, adin-talde bereko 1.000 emakumeko. Gainera, gazteek bikoiztu egiten dute 30 urte eta gehiagoko kolektiboari dagokion tasa (% 9,8 eta % 4,4, hurrenez hurren).

3.39 grafikoa Emakumeen aurkako indarkeriaren tasaren bilakaera

(adinaren arabera, tasa 1.000 biztanleko)



Iturria: Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.


Emakume gazteen erdiek baino gehiagok uste dute gizonek aukera gehiago dituztela enplegu bat lortzeko

Kualifikazio eta esperientzia bereko gizon gazte batek eta emakume gazte batek (15 eta 29 urte bitartekoak) hautaketa-prozesu bat egiten badute, emakumeen **% 55,4k uste du bere aurkari maskulinoak aukera gehiago izango lituzkeela lanpostu hori lortzeko.**

Aitzitik, gizonen % 25,5ek baino ez du iritzi hori, eta agerian uzten du emakumeen eta gizonen artean genero-desberdintasunaren pertzepzioan dagoen aldea.

3.40 grafikoa Lana lortzeko diskriminazio-sentsazioaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

Emakume gehienek beldur diote gauez bakarrik ibiltzeari kalean

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 46,7k adierazten du beldurra sentitzen duela gauez kalean bakarrik ibiltzean. Gainera, pertzepzio hori % 72,1era igotzen da emakume gazteen artean, eta prebalentzia hori txikiagoa da gizonen artean (% 22,7).

3.41 grafikoa Kalean gauez bakarrik ibiltzeko beldurra dutela dioten 15-29 urteko emakume eta gizonen ehunekoaren bilakaera

(%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.


3.7. Balioak eta jarrerak

Gazteen % 13,8k boluntario-lanak egiten dituzte

2023an, 15 eta 29 urte arteko gazteen % 13,8k **boluntario-lanen** bat egiten zuten. Tasa horrek goranzko joera erakusten du, gizonen eta emakumeen parte-hartze berdinarekin.

3.42 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen boluntariotza-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

Asoziazionismo-tasa (15-29 urte): % 44,7

2023an, **15-29 urteko gazteen % 44,7 elkarteren bateko kide zen**. Asoziazionismo-tasa zertxobait handiagoa da gizonen artean (% 47,0 eta % 42,3, hurrenez hurren).

3.43 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

Gazteek politikarekiko duten interesak gora egiten jarraitzen du

Gazteen erdiak (15-29 urte) interes handia edo nahiko handia du politikan (% 51,4). Proportzio hori bikoiztu egin da 2012koarekin alderatuta, eta, oro har, gizonak emakumeek baino interes handiagoa dute (% 54,0 eta % 48,7, hurrenez hurren).

3.44 grafikoa 15-29 urteko gazteek politikan duten interesaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Lehendakaritza).

Gazteek parte-hartze aktiboagoa izan nahi dute gai publikoetan

15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 55,1ek adierazi du gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi lukeela. Ehuneko horrek gora egin du aurreko urteekin alderatuta, eta nabarmen handiagoa da emakumeen artean (% 60,3 eta % 50,2, hurrenez hurren).

3.45 grafikoa 15-29 urteko gazteek gai publikoetan parte hartzeko duten nahia

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.


EAEko gazteen % 40,2k modu jasangarrian kontsumitzen du

Kontsumo jasangarriaren indizeak ingurumena zaintzearekin lotutako portaera hauek hartzen ditu kontuan: gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erosten saiatzea, norberaren poltsa edo orga eramatea erosketak egiteko, etxeko zaborra hondakin motaren arabera bereiztea, uraren kontsumoa mugatzea eta garraio publikoa erabiltzea edo autoa partekatzea. Pertsona batek modu jasangarrian kontsumitzen duela jotzeko, jasangarritasunari lotutako bost jokabide horietatik gutxienez lau egin behar ditu.

2023an, modu jasangarrian kontsumitzen dutenen ehunekoa % 40,2koa da, eta goranzko profila du 2012tik. Gainera, emakume gazteek gizonek baino modu jasangarriagoan kontsumitzen dute: 15-29 urteko gizonen % 43,2k eta gizonen % 37,4k.

3.46 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.


Garraio publikoaren eta bizikletaren erabilerak zertxobait behera egin du

2023an, **15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen % 51,2k diote garraio publiko kolektiboa** (autobusa, trena, metroa, tranbia...) egunero edo ia egunero erabiltzen dutela. Ehuneko hori pixka bat jaitsi da 2021arekin alderatuta (% 59,3), baina urte horretan oso balio altua lortu zuen; beraz, azken hamarkadako ibilbideak berresten du euskal gazteek gero eta gehiago erabiltzen dutela garraio publiko kolektiboa.

Profil hori bat dator **bizikletaren erabilerarekin**, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 10,5ek erabiltzen baitu ohiko joan-etorrietan.

3.47 grafikoa Garraio publiko kolektiboaren eta bizikletaren erabileraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

3.8. Aisia

Lau gaztetik hiruk jarduera artistikoren bat egiten dute

2021ean, 15-29 urte bitarteko **gazteen % 76,8k** adierazi zuen azken urtean honako **jarduera artistikoren bat egin zuela**: argazkigintza, musika-tresna bat jotzea, margotzea, idaztea, dantza, bideoa eta ikus-entzunezko produktuak, abesbatza edo musika-talde batean abestea, antzerkia, bertsolaritza edo beste arte plastiko batzuk, etab.

Ehuneko horrek argi eta garbi goranzko profila erakusten du, eta adierazten du emakumeek horrelako jardueretan duten partaidetza-tasa zertxobait handiagoa dela gizonak dutena baino (% 79,1 eta % 74,5, hurrenez hurren), nahiz eta aldeak nabarmen murriztu diren.

3.48 grafikoa Arte-jardueretan parte hartzearen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean
(sexuaren arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Kulturaren Euskal Behatokia.


Sare sozialen eguneroko erabilerak gora egiten jarraitzen du gazteen artean

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen **% 72,0k** hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen ditu **egunero**. Ehuneko hori etengabe handitu da (% 33,1 2016an), sare sozial berrien hedapenaren ondorioz.

Sare sozialen erabilera hedatuta dago emakumeen eta gizonen artean (% 72,0 eta % 71,9) eta, batez ere, adin-talde gazteen artean (% 75,5 eta % 76,2, 15etik 19ra eta 20tik 24ra), eta sare sozialen ohiko erabilera zertxobait txikiagoa da 25-29 urteko gazteen artean (% 63,7).

3.49 grafikoa Sare sozialen erabilera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

Gazteen erdiak soilik egiten du kirolen bat erregularitasunez

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 52,8k kirolen bat egiten du astean 3 aldiz edo gehiagotan, baina alde handiak daude sexuaren arabera; izan ere, kirola gutxiago egiten dute emakumeek (% 45,9) gizonek baino (% 59,5).

3.50 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kirol-praktika erregularraren bilakaera
(sexuaren eta adin-taldeen arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

Gazteen ia erdiek irakurri dute libururen bat aisiagatik

Gazteen irakurtzeko ohiturak apur bat atzera egin du 2021ean, kontuan hartuta % 48,8k adierazi duela azken hilabeteen libururen bat irakurri duela aisiagatik, baina proportzio hori % 54,4koa zen 2015ean. Atzerakada hori bereziki garrantzitsua da gizonen artean (% 48,7 eta % 39,6, 2016an eta 2021ean), eta emakumeen irakurtzeko ohitura (% 60,4 eta % 57,9) nabarmen handiagoa da gizonena baino.

3.51 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen irakurtzeko ohituraren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Kulturaren Euskal Behatokia eta Kultura eta Kirol Ministerioa.


Hamarretik hiruk euskarazko libururen bat irakurri dute

2023an, **euskaraz irakurtzen duten gazteen ehunekoa % 29,4koa da**, eta bilakaera nahiko egonkorra izan du aztertutako aldi osoan, baina beheranzko joera txiki bat izan du azken urtean, eta hurrengo kontsultetan finkatu beharreko emaitza da.

Irakurtzeko ohiturari dagokionez, oro har, emakumeek gizonek baino neurri handiagoan adierazi dute azken hiru hilabeteetan aisialdiarekin, lanarekin edo ikasketekin lotutako libururen bat irakurri dutela euskaraz (% 32,8 eta % 26,2, hurrenez hurren). Hala ere, adierazi behar da bi kasuetan pixka bat jaitsi dela euskaraz irakurtzeko ohitura 2021arekin alderatuta.

3.52 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean euskaraz irakurtzeko ohituraren bilakaera

(adin-taldean arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gazteek lagunekin euskara gehiago erabiltzen dute

Gazteek gero eta gehiago erabiltzen dute **euskara lagunekin**: 16 eta 24 urte bitarteko hamar pertsonatik ia lauk (% 37,8k) euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte batez ere. Baina alde handiak daude lurralde historikoen artean: Gipuzkoa nabarmentzen da (% 63,6), Arabaren (% 27,5) eta Bizkaiaren (% 24,5) aldean.

3.53 grafikoa 16 eta 24 urte bitarteko gazteek lagunekin euskara erabiltzearen bilakaera
(lurralde historikoen arabera, %)



*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
(Inkesta Soziolinguistikoa).*



4.

2022-2026 ALDIRAKO V. GAZTE PLANAREN EGITURA

4. 2022-2026 aldirako V. Gazte Planaren egitura

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
1. ENPLEGUA	1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoko lortzea hezkuntza-eta lan-arloaren trantsituan	1.1.1. Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala 1.1.3. Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea
	1.2. Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea	1.2.1. Lehen lan-esperientziak bultzatzea 1.2.2. Esperientzia duten gazteak kontratatzeko laguntza 1.2.3. Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan 1.2.4. Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea 1.2.5. Enplegarritasuna aktibatze eta hobetzeko prestakuntza indartzea
	1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea	1.3.1. Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea 1.3.2. Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko
	1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea	1.4.1. Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean 1.4.2. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea 1.4.3. Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailetza sustatzea
	1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea	1.5.1. Langabezian eta egoera zaurgarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifikoak indartzea
	1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea	1.6.1. Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatze neurriak hartzea 1.6.2. Emakumeen eta gizonen soldatak parekatze ekintzak bultzatzea 1.6.3. Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea
2. ETXEBIZITZA	2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea	2.1.1. Etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba ezartzea 2.1.2. Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea
3. ERRENTA	3.1. Errenta erabilgarria hobetzea	3.1.1. Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea
4. KOHESIOA	4.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	4.1.1. Diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez oinarritzko premiak estaltzeko behar beste baliabide bermatzea 4.1.2. Kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea
5. ERRESILIENTZIA	5.1. Emantzipaziorako kultura-eraldaketa bultzatzea	5.1.1. Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak indartzea

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
6. OSASUN INTEGRALA	6.1 Osasun mentala eta emozionala hobetzea	6.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza 6.1.2. Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoeretarako
	6.2. Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea	6.2.1. Tabakoaren, alkoholaren, cannabisaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.2. Jokoa eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.3. Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa
	6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea	6.3.1. Heziketa afektibo-sexuala bultzatzea 6.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko neurriak indartzea
	6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea	6.4.1. Elikadura osasungarria sustatzea 6.4.2. Jarduera fisikoa eta aisialdi osasungarria sustatzea
7. HEZKUNTZA	7.1. Aukera-berdintasunean aurrera egitea	7.1.1. Derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketak egiteko eta amaitzeko neurriak hartzea, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen artean 7.1.2. Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta multikulturala sustatzea 7.1.3. Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arreta
	7.2. Berdintasunerako eta arrisku-egoeren prebentziorako hezteak	7.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa 7.2.2. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
	7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea	7.3.1. Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatu eta indartzea 7.3.2. Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa
	7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea	7.4.1. Ikerketa-bokazioak bultzatzea etapa goiztiarretatik 7.4.2. Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza, bereziki emakume ikertzaileentzako
8. KULTURA ETA EUSKARA	8.1. Kulturaren kontsumoa eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak bultzatzea	8.1.1. Kultura-jarduerak sustatzea 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak bultzatzea 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea
	8.2. Euskararen erabilera sustatzea	8.2.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta kultura-produktuen euskarazko kontsumoa sustatzea 8.2.2. Euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea
9. AISIA ETA DENBORA LIBREA	9.1. Aisialdian hezkuntza bultzatzea	9.1.1. Aisialdi hezitzailean parte hartzen duten eragileen sistema babestea eta indartzea
		9.1.2. Aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoa
10. PARTAIDETZA	10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea	10.1.1. Gazteek parte hartzeko eredu eta elkarrizketa-gune berriak bultzatzea 10.1.2. Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea 10.1.3. Gazte-boluntariotza bultzatzea 10.1.4. Talentu gazteen aintzatespena indartzea
11. BERDINTASUNA	11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea	11.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gizarte osoan 11.1.2. Emakumeen eta gizonen kontziliazio erantzunkidea bultzatzea
	11.2. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	11.2.1. Sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak hartzea (zero tolerantzia) 11.2.2. Arreta integrala eta kaltearen konponketa indartzea
	11.3. Emakumeak ahaldundutzea	11.3.1. Emakume gazteen ahaldundutze pertsonalerako eta kolektiborako laguntza 11.3.2. Emakume gazteek eremu eta gune guztietan parte har dezaten bultzatzea
12. ANIZTASUNA	12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea	12.1.1. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta bermatzeko neurriak bultzatzea
	12.2. Aniztasun funtzionala txertatzea	12.2.2. Irisgarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzea
13. BIZIKIDETZA	13.1. Indarkeria eta tratu txar egoerak errotik kentzea	13.1.1. Gurasoen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.3. Aisialdian, kirolean eta kalean indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea
	13.2. Balioetan hezte	13.2.1. Herriartasun globalerako, giza eskubideetarako, bizikidetzarako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea
14. KLIMA-ALDAKETA	14.1. Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea	14.1.1. Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bultzatzea 14.1.2. Mugikortasun jasangarria sustatzea

4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoa
15. EZAGUTZA ETA LANKIDETZA	15.1. Gazteen egoera hobeto ezagutzea eta ebaluatzea	15.1.1. Euskadiko gazteei buruzko azterlanak egitea 15.1.2. Gazte-politiken ebaluazioa eta jarraipena 15.1.3. Gazteekin lan egiten duten profesionalen ezagutza eta prestakuntza zabaltzea
	15.2. Gazteei informazioa eta aholkularitza ematea	15.2.1. Gazteentzako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen laguntzea
	15.3. Lankidetzaren eta elkarlana hobetzea gaztearen arloan	15.3.1. EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea 15.3.2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko partaidetza-guneak sustatzea



5.

2024ko PLAN OPERATIBOA

5. 2024ko Plan Operatiboa

2024ko Plan Operatiboak **277 ekintza** jasotzen ditu guztira, eta horietarako **426.067.214 €**-ko aurrekontua bideratzea aurreikusi da (gazteriari zuzenduta).

Taula honetan laburbiltzen dira Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren ardatz estrategiko bakoitzerako 2024rako aurreikusitako ekintzen kopurua eta programatutako aurrekontuaren zenbatekoa:

		277 ekintza		426 M €	
					
1. ardatza	EMANTZIPAZIOA (BIZI)	99 ekintza	% 35,7	327.008.070 €	% 76,8
2. ardatza	GARAPENA (GOZATU)	99 ekintza	% 35,7	64.023.472 €	% 15,0
3. ardatza	ERAGINA (ERALDATU)	48 ekintza	% 17,3	32.406.071 €	% 7,6
4. ardatza	BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA	31 ekintza	% 11,3	2.629.602 €	% 0,6

Bestalde, **39 ekintza berri** programatu dira, **70.806.718 €**-ko aurrekontuarekin.

2024ko berritasunak

		39 ekintza		71 M €	
					
1. ardatza	EMANTZIPAZIOA (BIZI)	11 ekintza	% 28,2	62.289.177 €	% 88,0
2. ardatza	GARAPENA (GOZATU)	15 ekintza	% 38,5	8.037.965 €	% 11,3
3. ardatza	ERAGINA (ERALDATU)	5 ekintza	% 12,8	391.605 €	% 0,6
4. ardatza	BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA	8 ekintza	% 20,5	87.972 €	% 0,1

Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planeko hamabost jarduketa-eremu edo -arlotara jaitsiz, 2024. urteko plan operatiboa jarraian azalduko den moduan zehazten da.

		 Ekintzak		 Aurrekontua	
Ardatza	Arloa	Kop.	%	Zenbatekoa	%
1. ardatza Emantzipazioa (Bizi)	Enplegua	82	29,6	77.144.695 €	18,1
	Etxebizitza	3	1,1	90.489.550 €	21,2
	Errenta	1	0,4	53.864.900 €	12,6
	Kohesioa	11	4,0	105.031.404 €	24,7
	Erresilientzia	2	0,7	477.520 €	0,1
2. ardatza Garapena (Gozatu)	Osasun Integrala	27	9,7	3.524.474 €	0,8
	Hezkuntza	37	13,4	51.424.364 €	12,1
	Kultura eta Euskara	28	10,1	8.426.901 €	2,0
	Aisia eta denbora librea	7	2,5	647.733 €	0,2
3. ardatza Eragina (Eraldatu)	Partaidetza	7	2,5	2.876.975 €	0,7
	Berdintasuna	18	6,5	1.050.629 €	0,2
	Aniztasuna	2	0,7	26.692.906 €	6,3
	Bizikidetza	11	4,0	789.795 €	0,2
	Klima-aldaketa	10	3,6	995.767 €	0,2
4. ardatza Behaketa eta Koordinazioa	Ezagutza eta lankidetzak	31	11,2	2.629.602 €	0,6
GUZTIRA		277	100	426.067.214 €	100

2024. urteko programazioa - Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Plana



#Vgazte plana

AR DATZA:

EMANTZIPAZIOA (BIZI)

ARLOA: ENPLEGUA

ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)				
ARLOA: ENPLEGUA				
Helburu estrategikoa: Gerturatze eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan				
Esku-hartze ildoak: Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Diru-laguntza Deustuko Unibertsitateari	174.444 €	174.444 €	Artatutako pertsonen kopurua	450
Diru-laguntza Mondragon Unibertsitateari	91.856 €	91.856 €	Artatutako pertsonen kopurua	250
Lanean hasteko azterketa - LH eta Unibertsitateak	Baliabide propioak	Baliabide propioak	Egindako txosten/azterketen kopurua	76
Esku-hartze ildoak: Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Hezibi programa: Prestakuntza eta txandakako lana 30 urtetik beherako gazte langabeentzat.	3.000.000 €	3.000.000 €	Kontratu kopurua	1.000
Esku-hartze ildoak: Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Diru-laguntza izenduna Deustoko Unibertsitateari, gazte-ibilbideei buruzko ezagutza kudeatzeko programa garatzeko.	50.000 €	50.000 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Helburu estrategikoa: Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea				
Esku-hartze ildoak: Lehen lan-esperientziak bultzatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Lehen Aukera programa, LHko eta unibertsitateko tituludun gazteentzat. Gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko laguntzen deialdia	8.536.000 €	8.536.000 €	Praktiketako kontratuen kopurua	460
Global Training	6.445.000 €	6.445.000 €	Emandako beka kopurua	500
Igarotze-bekak; unibertsitatekoak eta lanbide-heziketakoak, hezkuntza-mundurako trantsiziorako.	3.118.000 €	3.118.000 €	Emandako beka kopurua	1.600
Igarotze- eta ekintzailatza-bekak	2.466.000 €	2.466.000 €	Emandako beka kopurua	1.047
AGINDUA, 2024ko otsailaren 21ekoa, Novia Salcedo Fundazioari dirulaguntza izenduna, Reactivate Programa, 2024ko Ekintza Plana eta XI Bilbao Youth Employment Forum egiteko.	1.045.000 €	1.045.000 €	Programan parte hartu duten pertsonen kopurua	Ez dago daturik
Nazioartekotze-bekak BEINT	660.000 €	660.000 €	Beken onuradun izandako gazteen kopurua	100
Gazteak Kanpo Ekintzaren arloan prestatzeko bekak	288.000 €	288.000 €	Deitutako beken kopurua	14
Dirulaguntza izenduna koreografiaren artearen garapena sustatzeko elkarteari (Dantzaz Konpania), bere urteko programa finantzatzeko	82.000 €	82.000 €	Kontratatutako dantzari gazteen urteko kopurua	14

Lankidetza-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta kontsumo Sailaren eta Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Turismo Sailaren artekoa, ikasleen prestakuntza-praktikak egiteko	25.000 €	25.000 €	Bekadun kopurua	100
6. Pabeloiko gazte konpainiarentzako laguntza	52.000 €	5.000 €	Kontrataturako aktore gazteen urteko kopurua	25
Besteren konturako kontrataziorako laguntza-lerroa (LEADER)	Zehazteko dago		Sortutako enplegu (gazte) kopurua	15
Esku-hartze ildoak: Esperientzia duten gazteak kontratatzekeko laguntza				
Ekintzaren izena	Programaturako aurrekontua 2024	Programaturako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Toki-erakundeetako gazteak kontratatzea	8.000.000 €	8.000.000 €	Kontrataturako gazteen kopurua	280
KonektaLan	350.000 €	350.000 €	Parte-hartzaileen kopurua	300
Esku-hartze ildoak: Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan				
Ekintzaren izena	Programaturako aurrekontua 2024	Programaturako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Tokiko enplegua garatzeko eta sortzeko proiektuak	19.148.936 €	5.744.680 €	Kontrataturako gazteen kopurua	360
IKERLAN programa	2.500.000 €	2.500.000 €	Parte-hartzaileen kopurua	44
Prestakuntza enplegu-nitxo berrietan	7.500.000 €	1.042.500 €	Prestaturako gazteen kopurua	1.112
Prestakuntza Eusko Jaurlaritzaren/Hezkuntza Sailaren titulartasun juridikoko lanbide-heziketako ikastetxe publikoekin	7.067.867 €	982.433 €	Prestaturako gazteen kopurua	744
Bikaintek programa: doktorego industrialak egiteko laguntza-lerroa	750.000 €	750.000 €	Kontratazio kopurua	32
Txanda-kontratua	1.200.000 €	696.000 €	Guztira egindako txanda-kontratuen kopurua	101
Pasaiako, Ondarroako eta Bermeoko Itsas Arrantzako Institutu Politeknikoetan ikasketak egiteko bekak	140.506 €	140.506 €	Beka kopurua	168
Merkataritza-ganberentzako diru-laguntza, "Retaileko Euskal Eskolaren Garapena" proiekturako	820.000 €	113.980 €	Eroritako saltokien kopurua	42
BEK bekak	84.676 €	84.676 €	Emandako beka kopurua	4
Dirulaguntza izenduna Industrias Creativas fundazioari, EAEko kultura-industriak sustatzeko eta indartzeko. Bime Pro Campus 2024	40.000 €	36.000 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Esku-hartze ildoak: Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea				
Ekintzaren izena	Programaturako aurrekontua 2024	Programaturako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
2023-2025 laguntza-deialdia, lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko	8.211.667 €	1.141.421 €	Gazteen informazio- eta orientazio-ekintza pertsonalizatuetan artaturako pertsonen kopurua	6.255
Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Unibertsitateari	275.570 €	275.570 €	Artaturako pertsonen kopurua	750
Hitzarmena Novia Salcedo Fundazioarekin	150.000 €	150.000 €	Artaturako pertsonen kopurua	250
Esku-hartze ildoak: Enplegarritasuna aktibatzeke eta hobetzekeko prestakuntza indartzea				
Ekintzaren izena	Programaturako aurrekontua 2024	Programaturako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Ikastetxe pribatu eta publikoetako prestakuntza	16.498.350 €	2.293.270 €	Prestaturako gazteen kopurua	1.600
Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza	1.212.600 €	1.212.600 €	Parte-hartzaileen kopurua	200
Lanbide maskulinizatu eta feminizatueta emakumeak eta gizonak kontratatzekeo konpromisoak eta prestakuntza	3.000.000 €	417.000 €	Prestaturako eta kontratatutako gazteen kopurua	14

Teleprestatuntza	2.000.000 €	278.000 €	Prestatutako gazteen kopurua	188
Itsasoratu Programa	105.000 €	105.000 €	Parte hartu duten ikasleen kopurua	15
Helburu estrategikoa: Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea				
Esku-hartze ildoak: Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Osalaran eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzak-hitzarmena, UPV/EHU-Osalaran Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Katedra sortu, garatu eta mantentzeko	40.000 €	40.000 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	6
UPV/EHUko laneko segurtasun eta osasuneko masterreko diru-laguntza	13.000 €	13.000 €	Osalaran Laneko segurtasun eta osasun uda ikastaroan emandako ordu-kopurua	30
Ikasleek OSALANera egindako bisitak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko	Baliabide propioak	Baliabide propioak	LHko ikasle-kopurua	100
Udako ikastaroa laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan, Osalaran unibertsitatean antolatzen duena	Baliabide propioak	Baliabide propioak	Udako Unibertsitateko laneko segurtasun eta osasunari buruzko Osalaran ikastaroko ikasle-kopurua	100
Lehen eta Bigarren Hezkuntzan laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko plana	Baliabide propioak	Baliabide propioak	Webguneko sarrera-kopurua	6.000
Barne-erizain egoiliarren, barne-mediku egoiliarren eta erizaintzako ikasleen prestakuntza	Baliabide propioak	Baliabide propioak	Barne-erizain egoiliarren, barne-mediku egoiliarren eta erizaintzako ikasleen kopurua	8
Esku-hartze ildoak: Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
ADI Proiektua	20.000 €	20.000 €	ADI proiektuan trebatutako LHko ikasleak eta ikasle-kopurua, guztira	300
Helburu estrategikoa: Gazte ekintzaileen kopurua handitzea				
Esku-hartze ildoak: Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Ekintzailetzarako laguntzak	3.900.000 €	1.170.000 €	Tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan enpresa-idea bat garatzeko gazte onuradunen kopurua	198
Ekintzailetza-bekak	700.000 €	700.000 €	Emandako beken kopurua	150
Euskadiko Gazte Orkestrarentzako diru-laguntza	330.000 €	330.000 €	Programaren bidez prestatutako gazteak	70
Sorkuntza koreografikorako laguntzak (Dantzan Bilaka)	150.000 €	90.000 €	Koreografo gazteei emandako laguntzen kopurua	7
Gidoi zinematografikoak sortzeko laguntzak	156.000 €	39.000 €	Gidoiak idatzi dituzten gazteei emandako laguntzen kopurua	3
Gazteentzako literatura sortzeko laguntzak	54.000 €	18.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	2
Ipuin edo eleberri laburrak sortzeko laguntzak	54.000 €	18.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	2
Album ilustratuak sortzeko laguntzak	45.000 €	15.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	1
Komikiak eta eleberri grafikoak sortzeko laguntzak	60.000 €	15.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	1

NOKA Mentoring Programa	30.000 €	15.000 €	Urtean zehar parte hartu duten gazteen kopurua	1
Musika konposatzeko laguntzak	82.000 €	14.000 €	Konpositore gazteei emandako laguntzen kopurua	2
Antzerkirako testuak sortzeko laguntzak	108.000 €	13.000 €	Antzerki-lanak idazten dituzten gazteei emandako laguntzen kopurua	2
Ekintzailerako eta barne-ekintzailerako laguntza-lerroa(LEADER)	Zehazteko dago		Lagundutako gazteen proiektu kopurua	5

Esku-hartze ildoak: Ekintzailerak eta gizarte-ekonomia sustatzea

Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Gizarte ekintzailerak programa	3.291.000 €	822.750 €	Sortutako enplegu (gazte) kopurua	125
Gizarte-ekonomia garatzeko eta zabaltzeko ikastaroak gazteentzat	970.000 €	388.000 €	Gizarte-ekonomiaren arloko enpresetako langile gazteen, unibertsitate-ikasleen eta DBHko ikasleen kopurua	1.000
Gaztenpresa, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua enpresa-ekimenetan	280.000 €	280.000 €	Gazteek sortutako enpleguak	77
Ekintzailerak, berrikuntza eta hiri-ekonomia aktibatze ekintzak sustatzeko eta laguntzeko programa.	1.750.000 €	243.250 €	Ekintzaileen kopurua	300
Gizarte-ekintzailerak: gizarte-ekonomiako enpresetan bazkide berriak sartzeko laguntza	500.000 €	200.000 €	Onuradunen kopurua edo ehunekoa	200

Esku-hartze ildoak: Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailerak sustatzea

Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Enplegurako prestakuntza (nekazaritza- eta itsas- eta arrantza-eremua)	700.000 €	97.300 €	Parte-hartzaileen kopurua	3.500
ONEKIN Pertsona ekintzaileei laguntza integrala emateko sistema: Gazteenek 2027 eta Geroa programak	700.000 €	97.300 €	Ekintzaileen kopurua	100
Praktikak	140.000 €	19.460 €	Parte-hartzaileen kopurua	15
Kultura ekintzailea	50.000 €	6.950 €	Parte-hartzaileen kopurua	150
Egonaldi laburrak	35.000 €	4.865 €	Parte-hartzaileen kopurua	5
Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan inbertsioak egiteko laguntza-neurria	Zehazteko dago		Lagundutako gazteen proiektu kopurua	11

Helburu estrategikoa: Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea

Esku-hartze ildoak: Langabezia eta egoera zaurgarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea

Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Zuzeneko dirulaguntza ematea udalei eta erakunde publikoei, gizarteratzeko eta laneratze prestakuntza-, enplegu-, orientazio- eta laguntza-proiektuak egin ditzaten, 2022-2024ko Inbertsio Estrategikoen Planaren barruko hiri-berroneratze integraleko proiektuei lotuta.	4.292.564,71 €	1.759.566,38 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Gizarteratzeko eta laneratze proiektu bereziak, lana lortzeko edo mantentzeko zailtasunak dituzten langile landunentzat eta langabeentzat	7.000.000 €	973.000 €	Gazte onuradunen kopurua	834
Dirulaguntza izenduna Tendel elkarteari, Bilboko Otxarkoaga auzoan Diversi-Otxar etorkizuneko enplegarritasuna hobetzeko gizarte- eta hezkuntza-programa abian jartzeko	60.000 €	8.340 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100

Esku-hartze ildoak: Orientazioa eta laguntza espezifikoa indartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Familian laguntzeko sarerik ez duten gazteak gizarteratzeko eta helduarora igarotzeko ibilbide pertsonalizatuak eta integralak prestatzea eta egitea	5.000.000 €	5.000.000 €	Parte-hartzaile gazteen kopurua (18-23 urte)	390
Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektuak, lehentasunezko arretako kolektiboek zuzendutakoak	3.960.000 €	415.800 €	Parte-hartzaile gazteen kopurua	68
Ikaskuntza-bitartekarien sarea	595.000 €	82.705 €	Ikaskuntza-bitartekotzako zerbitzuetan artatutako pertsonen kopurua	5.000
Hemen programa: atzerritar gazteei orientazioa eta laguntza ematea. (Dirulaguntza izenduna ZEHAR Errefuxiatuekin elkarteari)	40.000 €	40.000 €	Parte-hartzaile gazteen kopurua (18-23 urte)	140
Sektore arteko inklusio-ibilbide mistoak			Parte-hartzaile gazteen kopurua	121
Helburu estrategikoa: Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea				
Esku-hartze ildoak: Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatzeko neurriak hartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Enplegu-zentro bereziak	71.554.000 €	4.348.175 €	Parte-hartzaile gazteen kopurua	659
Laneratze enpresak	13.893.730 €	3.042.726,87 €	Gazte onuradunen kopurua	164
Esku-hartze ildoak: Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen lerroa (N Lerroa)	26.124.000 €	3.631.236 €	Onuradunen kopurua	2.190
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen ildoak (COVID Z)	2.000.000 €	278.000 €	Onuradunen kopurua	304
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen lerroa (D Lerroa)	1.325.000 €	184.175 €	Onuradunen kopurua	91
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen lerroa (E Lerroa)	390.000 €	54.210 €	Onuradunen kopurua	7
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen ildoak (Z lerroa)	50.000 €	6.950 €	Onuradunen kopurua	7

ARLOA: ETXEBIZITZA

ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)				
ARLOA: ETXEBIZITZA				
Helburu estrategikoa: Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea				
Esku-hartze ildoak: Etxebizitza babestuaren lehentasunezko erreserba ezartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Gazteek etxebizitza eskura dezaten bultzatzea, etxebizitza berriak, zuzkidura-bizitokiak edo bitartekaritza-programak sustatuz	177.472.806 €	71.016.742 €	ASAP eta Bizigune bitartekaritza-programen bidez etxebizitza bat eskuratu duten gazteen kopurua	40
Esku-hartze ildoak: Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Gaztelagun programa, alokairua ordaintzen laguntzeko.	18.740.000 €	18.740.000 €	GAZTELAGUN programaren onuradun diren gazteen kopurua	7.500
Etxebizitzarako eskubide subjektiboari lotutako etxebizitzarako prestazio ekonomikoa	5.272.000 €	732.808 €	EPE-a jaso duten gazteen kopurua	Ez dago daturik

ARLOA: ERRENTA

ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)				
ARLOA: ERRENTA				
Helburu estrategikoa: Errenta erabilgarria hobetzea				
Esku-hartze ildoak: Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Emantzipa programa, gazteen emantzipazioari laguntzeko.	53.864.900 €	53.864.900 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100

ARLOA: KOHESIOA

ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)				
ARLOA: KOHESIOA				
Helburu estrategikoa: Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea				
Esku-hartze ildoak: Diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez oinarritzko premiak estaltzeko behar beste baliabide bermatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria	382.000.000 €	47.368.000 €	Gazte titularrak	6.273
Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzea	180.000.000 €	25.020.000 €	Gazte titularrak	1.090
Ardurapeko seme-alabengatiko dirulaguntzen lerroak	149.681.300 €	20.805.700,7 €	Onuradunen kopurua	20.254
Haur Bermearen Euskal Estrategia	220.000 €	30.580 €	Onartutako dokumentuen kopurua	1
Esku-hartze ildoak: Kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2024	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2024	Munta adierazlea	Xede-balioa
Gazte Justiziaren V. Planean aurreikusitako ekintzak abian jartzea (ikastetxeak)	10.575.370,48 €	10.575.370,48 €	Adostutako programaren betetze-maila	100
